

FUNTSEZKO JARDUERAK

Ekopresaren funtsezko jarduerak proiektu bat hasi, garatu eta amaitu arte egiten diren urrats praktiko guztiak dira. Lehenik eta behin, proiektu bakoitza planifikatu eta diseinatu behar da, horretarako lekua aztertu behar da (presa eraikiko den lekua, ingurumena, klima... kontuan hartuz), neurriak hartuz eta materialen kalkulu zehatzak eginez. Diseinu fase horretan zehazten da zenbat pneumatiko behar diren, zein izan behar duen HDPE laminaren azalerak, nola ezarriko den drainatze-sistema eta zein malda izango duen egiturak. Ondoren, materialen bilketa eta prestaketa etorriko litzateke. Pneumatikoak kotxe-tailerretatik eta dendetatik biltzen dira, dohainik lortuz, eta artilea inguruko baserrietatik eskuratzen da. HDPE lamina eta geotextila bezalako osagai espezifikoak enpresetatik erosten dira, eta beste material naturalak (material organikoak), leku bertatik edo hurbileko iturrietatik lortzen dira. Material horiek guztiak proiektuaren lekura garraiatu eta biltegitatu behar dira.

Eraikuntza fasea zuzenean gainbegiratu behar da. Horren barruan sartzen da lekuaren garbiketa eta prestaketa, pneumatikoak geruzaka jartzea eta ondo trinkotzea, drainatze-hodiak kokatu eta probatzea, HDPE lamina instalatzea eta geotextilaz estaltzea, azken estaldura naturala ezartzea eta, azkenik, landare egonkortzaileak landatzea. Jarduera horietan, ahal den neurrian, tokiko langileak inplikatzeko saiatzen da, komunitatea proiektuan parte hartzeko eta tokiko enplegua sustatzeko. Eraikuntza bitartean, bezeroarekin harreman estua mantentzen da. Hasieran, proiektuaren xehetasunak eta aurrekontua adosten dira, eta udalaren baimenak lortzen dira. Eraikuntza egunetan zehar, bezeroari aurrerapenei buruzko informazioa emango diegu, eta proiektua amaitutakoan, presaren erabilera egokia erakutsiko diegu, mantentze-aholku praktikoak emanez.

Beste jarduera garrantzitsu bat tailerrak eta prestakuntza saioak antolatzea da. Bertan, beste udalerriei, ikastetxeei edo pertsona taldeei proiektuaren ideia aurkeztuko diegu. Gainera, Ekopresak kit modularrak prestatu eta salduko ditu, norbanakoek edo talde txikiek proiektu propioak egiteko.

Lizitazio publikoetan parte hartzea eta erakunde publikoekin harremanak (lobbya) gure proiektu gehiago lortzeko modu garrantzitsuak dira. Lizitazioak udalerri, foru-aldundi edo beste erakunde publiko batzuek proiektu baterako proiektua eskaintzeko eskatzen dutenean egiten dira. Gu proiektu horietara aurkeztuko gara, gure presa ekologikoak dituen abantailak (birziklatutako materialak, kostu baxua, ingurumena errespetatzea) azalduz. Gainera, erakunde publikoekin harremanak izango ditugu (lobbya), hau da, bilerak eta aurkezpenak egingo ditugu gure proiektuak ezagutzera emateko eta proiektuak egiteko aukerak handitzeko. Helburua da erakunde publikoek gure proiektuak nahiago izatea eta diru-laguntzak edo proiektuak lortzea.

Proiektua amaitutakoan, urtebetera bezeroarekin harremanetan jarriko gara, proiektuaren egoera egiaztatzeko. HDPE laminaren konponketa posibleetarako material soberakin bat utzi ohiko dugu. Azkenik, administrazio-jarduerak kudeatuko ditugu, hala nola udalerri edo erkidegoetako diru-laguntzetarako eskaerak betez, kontratu publikoetarako eskaintzak

prestatuz, eta proiektuaren kostuen erregistroa (fakturak, langileen ordainketak) eramanez. Jarduera horiek guztiak ezinbestekoak dira Ekopresak proiektu jasangarriak, merkeak eta komunitatean oinarrituak aurrera ateratzeko.